



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2018/2019 denboraldia

9 ZK.DUN ZIRKULARRA

EMAKUMEZKOEN EUSKAL LIGA

Euskadiko Futbol Federakundeak Emakumezkoen Euskal Liga lehiaketa antolatuko du 2018/19 denboraldian, ondorengoei jarraiki:

1. Parte hartuko dute klubak

Anaitasuna C.D.; Arratia C.D.; Aurrera de Vitoria C.D. "B"; Barakaldo C.F.; Bizkerre F.T. "B"; Derio C.D.; Elorrio C.D.; Erandioko Betiko Neskak F.K.E.; Goierri Gorri F.K.; Hernani C.D.; Leioako Emakumeak S. F.K.E.; Mariño C.D.; Oiartzun K.E. "B"; Pauldarrak F.K.T.; Tolosa C.F. eta Zarautz K.E.

2. Lehiaketa sistema

Multzo bakarrean, puntuetara eta itzuli bitan (hogeita hamar jardunalditan, guztira) egingo da lehiaketa, eta Euskadiko Futbol Federakundearen Araudi Orokorreko xedapenak ezarriko dira.

3. Lizenziak eta adinak

Klubek gehienez hogeita bost jokalarien lizentzia lortu ahal izango dituzte, "FA", "FJ" eta 15 urte betetako "FC" lizenziak aipaturiko kopuruan neurtuz.

4. Partiden data eta ordutegiak

Lehen itzulia: irailaren 9, 16, 23 eta 30; urriaren 7, 14, 21 eta 28; azaroaren 4, 11, 18 eta 25; abenduaren 2, 9 eta 23.

Bigarren itzulia: urtarrilaren 6, 13, 20 eta 27; otsailaren 3, 17 eta 24; martxoaren 3, 10, 17, 24 eta 31; apirilaren 14 eta 28; maiatzaren 5.

Partidak larunbat arratsaldera aurreratu ahalko dituzte klub antolatzaileek, 15,30etik aurrera, aurkariaren oniritzia izan gabe ere.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

Esan ere, ordutegi lerro bat jarri dala, beraz partidak 10,30etatik-13,00etara eta 15,30etatik-18,30etara bitartean hasiko dira, logikoki lehiatzen duten klubaren arteko akordioa izan ezik.

5. Sailkapen ondorioak

Emakumezkoen Bigarren mailara lehenengo postuan sailkatutakoa igoko da.

Sailkapenean 15. eta 16. amaituriko taldeak beren lurraldeko ligara jaitsiko dira. Halaber, Emakumezkoen Bigarren Mailatik federazio honetako talderik jaitsiz gero, azken sailkapenean postu horien aurretxoan egondako taldeek, behar beste, maila galduko dute.

Orobat, lurralde ligetan lehenengo postua lorturiko taldeak igoko dira Euskal Ligara.

Lurraldeko ligetan bigarren postuan sailkatutakoak, fase bat jolastuko dute hiru batean sistemaren arabera, sailkatze klasifikazio bat ezartzeko asmoz, Emakumezkoen Euskal Ligan hutsuneren bat baldin balego.


6. Ordezpenak

Partidetan, gehienez bost futbolari ordeztu ahalko dira. Gehienez zazpi balizko ordeztu egon ahalko da, eta partida hasi baino lehen, horien izenak eta titularrenak jakin beharko ditu arbitroak.

7. Entrenatzaileak

Gogorarazten da tituludun Entrenatzailea beharrezkoa dela, gutxienez 1. Maila edo kirol teknikari lehenengo kurtsoa, igo berri diren klubak haien lehenengo denboraldian salbuespen.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 3 -

8. Delegatuak

Delegatu bat gutxienez edukitzeko derrigortasuna gogoratzen da, bere lizentzia federatiboa tramitatuta.

Ezinbesteko arrazoia ez bada, delegatua bere taldeak edozein txapelketatan parte hartzen duen partiduetan egon behar da, dagokion aktan agertuz eta partiduan zehar bere tokia aulkian betez.

9. Arbitroak

Partida jokutzen den lurraldeko federaziokoak izan beharko dute. Lurralde Maila Goreneko arbitroek zuzenduko dituzte partidak.

10. Diziplina Araudia

Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Araudiak arautuko du lehiaketa, eta gerta daitezkeen gorabeherak Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina eta Apelazio batzordeek ebatziko dute.

Eta horren berri ematen da, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2018ko abuztuaren 6an.

KEPA ALLICA BILBAO
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL